

Ilbeltza

Itzea URKIZU ARSUAGA

Ilbeltza joan da eta hemen da inauteri garaia. Lurra kolpatzekoa, dantzatzekoa, naturari gogoraraztekoa iratzarri behar duela, bizitza deituriko honek aurrera jarraituko badu. Hasi da lurra esnatzen, errituak dira berritu. Negua baita loa, atsedena, ezinbesteko itzaltze bat, sekula lorerik etorriko bada.

Erraza dirudi maskarak, joareak edo mozorroak jantzita natura esnatzeak, berez etorriko dela badakigun horri modu sinbolikoan deitzeak, geronek ere gogora dezagun bagarela eta izango gara. Hain bukolikoak eta poetikoak bali-

ra esnatze guztiak... Ba, ez nintzateke testu hau idazten ariko.

Gure amonak urteko lehenengo hilabetea izendatzeko erabiltzen zuen hitza-
ren antzera igaro baitzaigu hilabetea be-
ra: beltz. Dramatikoezia, akaso, begirada
zilborretik mundura altxatzen duen
edonorentzat; argigarria ere bai, erraie-
tatik zutabera botaka egiteko.

Inork ez digu erakusten guraso iza-
ten: norberak asmatu behar du bere
erle-dantza propioa, zaintzaren eta
hazkuntzaren neguak eta inauteriak
egoki programatu, eta udaberrirako li-
liak polinizatzeko. Erlama batek ez du

besterik nahi: bere erletxo txikiak lo-
rez lore usainean ibitzea, nektarraren
estasian, eta hala behar dutenean er-
launtzara biltzea, besarkada eztitan.
Erle zaharrentzat bigunegia den aba-
raskako gelaxka guztietara zabaltzea
behinola bere gorputza izan zen etxea-
ren teilatua.

Beti ez du lortzen, ordea; tarteka, erle
txikiak kabitu ezinda bilatzen ditu er-
launtzan, polen gozotan gazi, edozein
dantzari entzungor. Eta, orduan, erlama
ziztadaka hasten da; ez beti norabiderik
egokienean, baizik eta ahal duen bezala.

Etorriko ahal dira loreak. •

Larrialditik indarraldira

Miren AZKARATE BADIOLA

Euskararen egoera larria hizpide da azken aldian, oldarraldi batez eta alarma gorriaz ari gara hizketan behin eta berriro. Hala da, bai, ez da gutxiagorako, datuei begiratzen badiegu behinik behin. Eta ez bakarrik datuei, egunerokoan bizi ditugun egoerei erreparatuta ere antzeko konklusioak aterako ditugu. Asko dira euskaldun orok egunero pairatzen ditugun gure hizkuntzarekiko erasoak, esango nuke zoritxarrez ohitu egin gara eta askotan erreakzionatzeak ere pereza ematen digula. Baina ni bereziki asaldatzen naiz haurrak tarteko badaude, eta hau da justu aurrekoan nire haurrarekin bizitu nuen egoera, oraindik ere sumintzen nauena.

Osasun zentro bat, pediatriako zaitia, erradiografia bat egiteko zain: itxaron gelan beste ama bat haur txiki batekin eta ni nire haur zaharrena-
rekin. Datu moduan, Oiartzun eta Ooreretako haurrak (zein helduak) ar-
tatzen dituen zentroa, bi herri euskal-
dun, eta bertako haurren portzentaje
oso altu batek euskara hutsean egiten
ditu bere ikasketak. Erizain gazte-gaz-
te bat haurrari zuzentzen gaztelera
hutsean, azalduz zer egingo zioten
bakarka gela batean. Ni erizainari gaz-
teleraz esanez haurrak ez zuela gazte-
leraz ulertzen eta ea pasa nintekeen
haiekin itzulpen lanak egiteko, eta
hara nire sorpresa, erizaina euskara
polit batean haurrari zer egingo zio-

ten azaltzen aditu nuen. Beste ama
eta ni harri eta zur, “euskaraz daki-
ta!”, baina bigarren erizain bat ere
atera zen nigana azalpen batzuk ema-
tera, gazteleraz hau ere, eta haurra
azaldu zenean, egin zioten erradio-
grafia ikusi nahi nuen esateko, azken
erizain hori ere euskara garbian hiz-
ketan hasi zitzaigun.

Ezin sinistu eta ezin jakin zer egin
horrelako egoeren aurrean, argi dut
euskararen osasuna txarra dela, ez
bakarrik eraso eta oldarraldiagatik,
baizik eta dakigunon utzikeriagatik.
Euskarak milaka urte iraun ditu, ge-
rrak, diktaturak eta denetariko egoe-
rak tarteko. Dakigunok erabiltzen ez
badugu, jai dugu! •